UEU-KO UDA IKASTAROAK. Iruñeko ikastaldiak bigarren astean daude eta ostiralean amaituko dira

Euskal komunitate zientifikoaren datu basea aurkeztu dute Iruñean

O.A. | IRUÑEA

Inguma datu basea lehen aldiz aurkeztu zenetik urtebetera jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman duela adierazi zuen atzo Xabier Isasi UEUko zuzendariak, euskal komunitate zientifikoaren datu-basea aurkezteko emandako prentsaurrekoan.

Hain zuzen ere, iaz 2.600 egilekin hasi ziren eta dagoeneko 3.506 egile ditu euskal komunitate zientifikoaren datu baseak. «Egile esatean, euskarazko produkturen bat, idatzizkoa ala hitzaldia, ekarri dutenak esan nahi dugu», azaldu zuen Isasik. Gaur egun Ingumak 10.249 produktu ditu. Sarean konektaturik dagoen edonork du bere datu basean kontsultatzeko aukera, *www.inguma.com* helbide elektronikoan.

Ingumaren arduradun Pruden Gartziak hiru hitzetan laburtu zuen datu base horren helburu nagusiak zeintzuk diren: «Internet, euskara eta unibertsitatea». Izan ere, Ingumak unibertsitatean aritutako jendeak euskaraz egindako lanak biltzen ditu. Euskaraz dakien jende asko dagoen arren, elkarren ezagutzarik ez dutela adierazi zuen Gartziak: «Helbide honen bitartez, pertsona horiek harremanetan jartzeko tresna sortu nahi dugu».

Egileen helbide elektronikoen bila ari dira

Ildo horretan, datu basearen arduradun Karmele Artetxek egileen helbide elektronikoa izatearen garrantzia azpimarratu zuen harreman horiek hobeto bideratu eta zuzenketak egiteko. Une honetan, ordea, egile guztien %20ren helbidea bakarrik dutela azaldu zuen eta bidaltzeko deia egin zien egileei.

Pruden Gartziak azaldu zuenez, datu basearen lehen fasean UEUn egindako produkzio guztia sartu zuten. Azken sei hilabeteetan, berriz, Euskal Herriko 32 aldizkari zientifiko arakatu dituztela azaldu zuen Gartziak. Aldizkari guztietako produkzioa batera sartzea ezinezkoa denez, aukeraketan lurralde eta gaiari dagokionez oreka gordetzen saiatu dira.

Xabier Isasik, bere aldetik, Ingumaren ekarpenak azaldu zituen: «Honek erakusten du euskal komunitate zientifikoa ez dela uste bezain txikia, eta gai askotarikoa dela, gaur egun jakintzaren edozein esparrutan aurkitu baitaiteke adituren bat edo beste».

IÑAKI KARRERA

SEXOLOGOA ETA UEU-KO SEXOLOGIA SAILEKO ARDURADUNA


JOXE LACALLE

«Gaur egungo edertasun ereduak gure sexualitatea zapaltzen du»

Orreaga Aranburu | IRUÑEA

UEUko ikastaldien bigarren aste honetan, besteak beste, sexualitateari buruzko ikastaroak izan dira. Iñaki Karrera Sexologia Saileko arduraduna izateaz gain, irakasle ere bada ikastaroetan. Gizarteak inposatzen dituen ereduei buruz eta horrek dauzkan ondorioei buruz aritu da. Karreraren esanetan, norberak bere gorputza ezagutzea eta onartzea ezinbestekoa da, baina gaur egungo eredu estetikoak hori oztopatu egiten du.

■ Zer gai tratatu dituzu hitzaldietan?

Alde batetik, trisomia tratatu dugu, hau da, Down sindromea duten pertsonen errealitatea. Horretarako gizartean inposatzen diguten eredu sexualari buruzko gogoeta egin dugu eta ondorengo egunetan eredu horietara egokitu ezin daitezkeenen berezitasunak eta gizartean planteatzen dituzten iritzi kontrajarriak azalduko ditugu.

■ Nola bizi dute sexualitatea trisomia duten pertsonek?

Bizi baino gehiago, sexualitatea sexualizazio prozesu bat da. Beraiek prozesu horretan berezitasunak dituzte eta gozatzeko beste ahalmen batzuk dituzte. Horretara ailegatu baino lehenago gehien jorratzen duguna mitoak dira. Bestalde, hezkuntzari garrantzi handia ematen diogu, beraiek arau sozialak inork baino hobeto barneratu behar dituztelako. Jendeak desberdin ikusten du pertsona *normalek* arauak haustea. Trisomia duten pertsonek erakutsi egin behar dute gizarteak inposatzen dituen arauak eskuratu, garatu eta gizartean leku bat izan dezaketela.

■ Eta zein da hori lortzeko bidea?

Hezkuntza. Zenbait estrategien bidez lortu nahi dena da pertsona hauek autonomoak izatea.

■ Zer landu duzue aberastasun pertsonaleko tailerrean?

Kasu praktikoak. Nolabait, gizarteak inposatzen duen irudiaren ildoarekin lotzen da tailerra: bakoitzak bere sexualitatea duela eta norberari gustatzen zaion eta sentitzen duen horretan sakondu behar dugula eta hori konpartitzen jakin behar dugula. Gizartean dagoen ereduaren arabera, zakila da plazerraren hartzaile eta emailea eta jenderi ez zaio bururatzen beste mota bateko jolasekin gozatu daitekeela. Eredu hori ezin da onartu, alde batetik emakumeak zakilik ez duelako eta bestetik gizona zakilan zentratzeak ekartzen dituen ondorioengatik: inpotentzia, isurketa goiztiarrak...

■ Zenbat jende matrikulatu da sexualitateari buruzko ikastaroetan? Generoari edota adinari dagokionez talde nagusirik ba al dago?

Zortzi pertsona matrikulatu dira, horietarik bi, mutilak. Mutilen bat matrikulatzen den lehen aldia da. Normalean mutilak ez dira matrikulatzen. Izan ere, mutilek ez dute kezkarik plazerra zakilan kokatuta. Adinari dagokionez gazteak dira, 22-30 urte inguruan.

■ Zeintzuk dira ikasleen kezka edo zalantza nagusiak?

Zaila egiten zaie eredu soziala zein den ikustea eta nola parte hartzen dugun eredu horietan. Aberasgarriena eta gogorrena da aldi berean.

■ Gaur egun lehen baino askatasun handiagoa al dago sexualitatea adierazteko?

Nik uste dut pobrezia sexuala dagoela. Edertasun eredu bat daukagu eta horrek bizitza sexuala kaltetu egiten du. Norberak bere gorputza ezagutzea eta onartzea garrantzitsua da. Edertasun estetikoa eta funtzionala bereiztu behar dira . Funtzionala da ereduetara ez moldatu arren, gustura sentiarazten gaituena, ukitzen digutenean ondo pasatzen dugulako; zentzu horretan oinak gozamen bat dira, baina onartu behar ditugu. Ederrak guztiak gara baina kontrakoa saltzen digute interes ekonomiko batzuren pean. Horrek gure sexualitatea zapaltzen du ez digulako ederra izaten uzten. Gainera gu dinamika horretan erortzen gara.

■ Eta hitz egiteko askatasuna dago?

Ez zait iruditzen zentzu horretan aurrerapauso handirik eman denik. Agian egin dugunaz asko hitz egiten dugu, baina gure gustuak eta sentimenduak konpartitu behar ditugunean zaila egiten zaigu. Desioa merkatuan dagoenez, saldu nahi digutenez, hitz egiten dela dirudi, baina nire ustez gauzak azaletik bakarrik aldatu dira. Gainera hitz egiten denean betikoaz hitz egiten da, beti harreman penetratiboetan zentratzen gara.

■ Nola aurre egin behar zaie beldurrei, lotsei...?

Masturbazioa da ezinbesteko teknika. Nire iritziz intimitatea kristorena da eta ikasteko, jateko... orduak ematen ditugun bezala, gure buruarekin jolasteko orduak eman behar ditugu. Horren bidez, lortuko dugu gure gorputzaren irudia goraipatzea eta gozatzen ikastea.

■ Zerk dauka eragin handiena sexualitatearen inguruan mitoak sortzeko?

Gaiaren arabera. Jarrera batzuk Eliza katolikoak bultzatu zituen eta geroago higienearen edo ikuspegi medikoaren aitzakian jokaera batzuk bultzatu ziren. Gure joerak gaiaren eta garaiaren arabera aldatzen dira. Bilatzen dutena gure portaerak moldatzea da.

PENETRAZIOA

> «Gizartean dagoen ereduaren arabera, zakila da plazerraren iturburu bakarra»

INTIMITATEA

> «Gure burua ezagutu eta onartzeko masturbazioa oinarrizkoa da»